



San Martzial jaietako herri bazkaria, iaz. BEÑAT PARRA

Haur danborrada berreskuratuko dute Altzako sanmartzialetan

Hainbat berritasunekin ospatuko dituzte jaiak, gaur bertan hasita. Haurrentzako ginkana berezia prestatu dute, baita Kulturarteko eguna ere, eta musikari dagokionez, erromeriaren orde, DJ-ak izango dira protagonistak.

Sara Ibaguren Etxeberria

Altzako sanmartzialei gaur bertan egingo diete ongietorria, eta asteazkenera arte, jaietan murgilduta egongo da auzoa. Hainbat berritasun dituzte egitarauan, eta horien artean, haurrentzako prestatutako jarduerak nabarmentzen dira, besteak beste.

Ixiar Atorrasagasti (Altza, 1997) jai batzordeko kideak azaldu duenez, haurren danborrada berreskuratuko dute, hainbat urtez egin gabe egon ostean. «Iaz, aurtengo gauzak pentsa-

tzen hasi ginen jai batzordeko kideok, eta erabaki genuen haurren danborrada egin behar genuela. Entsegetan, ikusi dugu haurrei pila bat gustatzen zaiela. Egia esan, arrakasta eduki du, 50 ume inguruk eman dutelako izena», jakinarazi du Atorrasagastik.

Bestalde, iaz lehenengoz antolatatu zuten giza proba jarraipena emango diote, baina beste berritasun batekin: «Iaz, Altzako kuadrilla batzuk hartu zuten parte, baina aurtengo pixka bat zabaldu dugu hori,

eta Altzako hiru kuadrillaz gain —Altza Harria, Altzako Basurdeak eta Altzatarra K.E.—, beste herri batzuetako taldeak ere etorriko dira. Hain zuzen ere, Lezoko Sats herri kirolak, Astigarragako Ikatza eta Hernaniko Denontzat taldea».

Kulturarteko eguna

Auzoan bizi diren kanpotarrek ere jaietz goza dezaten, Kulturarteko eguna ospatuko dute igandean. «Altzan kanpotar asko dago, eta nik uste dut festetatik kanpo geratzen direla pixka bat. Beraz, pentsatu dugu garrantzitsua dela beraiek ere guri erakustea egiten dituzten gauzak, gureak bakarrik egiten baditugu, kanpokoek ez dutelako guztiz bat egiten jaiekin», adierazi du Atorrasagastik.

Horrela, 16:00etatik aurrera, kulturarteko tailerrak eta munduko dantzak egingo dituzte Plaza Gorrian. 20:30ean, aldiz, La Jodederaren kontzertuaz gozatu ahal izango dute San Martzial plazan. Kubako musikariek eta euskaldunek osatzen dute taldea, eta hori aintzat hartuta programatu dute euren kontzertua Kulturarteko egunean.

Jaietako gauzarik berezienaren

inguruan galdetuta, jai batzordekoak erantzun du herri bazkariak indar handia duela. «Duela hiru urte, gazteak sartu ginen jai batzordean, eta herri bazkaria antolatzen hasi ginen. Horrek arrakasta handia du», nabarmendu du. Horrez gain, musikari dagokionez, aldaketak egingo dituzte. Iaz, erromeria izan zuten sanmartzialetan, eta aurten, berriz, DJ-ak izango dituzte. Gaur, Txet DJ-ak girotuko du gaua, eta ondoren, rap emanaldia eta SNKT taldearen kontzertua izango dira. Bihar, berriz, Mario Garcia eta Txolas DJ-ek jarriko dute auzoa dantzan.

Bigarren ezarritako dute giza proba, eta Altzako taldeez gain, inguruko herrietako hiru taldek ere hartuko dute parte

Ginkana berezia haurrentzat

Berritasun gutxi ez, eta asteartean, Haur eta Jubilatuen egunean, beste jarduera berri bat antolatu dute umeentzat. «Jai batzordeko kide bategi haurrentzako ginkana bat muntatu du. Altzako Erresuma Magikoa deitu dio, eta egia esan, oso polita izango da», azaldu du Atorrasagastik.

Arratsaldean gozatu ahal izango dute etxeko txikienek jarduera horretaz, San Martzial plazan. Horrez gain, haurrentzako futbol txapelketa eta jolasak, aurpegia margotzeko tailerra, apar festa eta txokolate jana ere izango dira egun horretan, beste hainbat gauzen artean.

Asteazkenean, Baserritarren eguna-rekin amaituko dituzte Altzako sanmartzialak. Meza nagusiaren ostean, XXXII. Sagardo Lehiaketa egingo dute, eta ondoren, idi-demak izango dituzte udal probalekuan. Bertso saioaren ostean, anaitasunezko bazkaria egingo dute Altzatarra K.E.-ren egoitzan, eta arratsaldeko idi-dema saioaren ostean, bertsolarien azken saioarekin bukatuko dira festak. ●



OSTIRALA 27

17:30

Dantza modernoa Pauso-K Dance Studio taldearen eskutik, Plaza Gorrian.

Ondoren

Euskal dantza emanaldia, Herri Ametsa dantza taldearen eskutik.

18:30

Pregoia, Altzako areto futboleko lagunek irakurriko dute. San Martzial plazan. Agintarien soka dantza.

19:00

Ongi etorri Altzara!, San Martzial plazan.

19:15

Emakumezkoen gomazko paleta finala, frontoian.

20:00

Buruhandiak kaleetan barrena. Altzako Herria V. Pilota Txapelketako finala, frontoian.

20:30

Afaria, Altzatarra K.E.-ren egoitzan. Kike Biguriren bakarriketa, Elizasu inguruan.

21:00

Txet DJ-a: Gau festa martxan, San Martzial plazan.

22:00

Danborrada, Altzatarra K.E.-ren egoitzan.

00:00

San Martzial ereserkiaren abestea, San Martzial plazan.

00:30

Kontzertuak: Unotres Mobb: Altzako gazteen rap gaua. Ondoren, SNKT Taldea.

LARUNBATA 28

10:00

'Alta 1931-1936' erakusketa, Altzako udaletxean.

10:30

Minbiziaren Aurkako Elkartasun azoka, ASGICER elkartearen laguntzarekin, Plaza Gorrian.

11:00

Puzgarriak haurrentzat, Elizasu inguruan. Giza proba desafioa, Altzako probalekuan.

13:00

Pilota partida handia: Goñi II – Azanza vs. Xala – Pascual, frontoian.

14:30

Herri bazkaria, San Martzial plazan.

17:00

Show-Time taldearen dantza emanaldia, Plaza Gorrian.

17:30

Elektrobuiaka elektrotxaranga kalerik kale, txosnetan hasita.



19:00

Buruhandiak kaleetan barrena.

19:30

Zumba saioa, Plaza Gorrian.

20:00

Lee Junior zuzenean, Elizasu inguruan.
Bingo musikatua, txosnagunean.

23:00

Mario Garcia DJ-a, San Martzial plazan.

00:00

Zezensuzkoa kaleetan zehar.

01:30

Txolas DJ-a, San Martzial plazan.

IGANDEA 29

Kulturarteko eguna

09:00

Diana, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

10:00

Altza 1931-1936 erakusketa,
Altzako udaletxean.

Irutxuloko Hitza

11:00

Haur danborrada, San Martzial plazan.

11:30

Bolo jaurtiketa lehiaketa, udal biltokian.

12:00

Nao Etxea abesbatzaren emanaldia,
San Martzial Parrokian.

12:30

Altzakillo, Plaza Gorrian.

16:00

Kulturarteko tailerrak eta munduko dantzak,
Plaza Gorrian.

18:00

Sagardo Eguna, San Martzial plazan.

19:00

Buruhandiak kaleetan barrena.

19:30

Salsa ikastaroa, Plaza Gorrian.

20:00

Salbea, San Martzial Parrokian.

20:30

Kontzertua: La Jodedera, San Martzial plazan.

ASTELEHENA 30

San Martzial eguna

10:00

Erakusketa 'Altza 1931-1936', Altzako
udaletxean.

11:00

Meza nagusia Altzako Deun gorenaren
omenez, San Martzial Parrokian.

12:00

Kantujira Altza Kantuz taldearekin, kaleetan
zehar.

12:30

Herri kirolen erakustaldia,
Plaza Gorrian.

13:30

Patata-tortilla lehiaketa, San Martzial Plazan.

Postre-lehiaketa, San Martzial Plazan.

17:00

Frontenis txapelketa, frontoian.

18:00

'Karpaty' zirko eta kale-antzerkia, Plaza
Gorrian.

19:00

Erraldoiak eta buruhandiak kaleetan barrena.

20:00

Sardina-jatea, San Martzial Plazan.

20:30

Frontenis txapelketaren finala, frontoian.

21:00

Clown ikuskizuna Ander Sanchezen eskutik, Plaza Gorrian.

ASTEARTEA 1

Haur eta jubilatuen eguna

12:00

Toka txapelketa jubilatuentzat, Nao Etxean. Haurrentzako marrazki lehiaketa, Plaza Gorrian.

16:30

Futbol txapelketa eta jolasak, Herri ikastetxean.

Aurpegia margotzeko tailerra, San Martzial Plazan.

Altzako Erresuma Magikoa: Haur ginkana berezia, San Martzial Plazan.

17:00

Nao Etxeko txapelketaren sari banaketa, Nao Etxean.

18:00

Apar festa, San Martzial Plazan. Txokolate-jana haurrentzat. Idien pisatzea, Oreretako Egi-Luzeko baskulan.

19:00

Angel magoaren ikuskizuna, Plaza Gorrian.

20:00

Buruhandiak kaleetan barrena. Marrazki lehiaketa sari banaketa, San Martzial Plazan.

20:30

Diskofesta, San Martzial Plazan.



ASTEAZKENA 2

Baserritarren eguna

10:00

Meza nagusia Santa Ixabel egunean, San Martzial Parrokian.

10:45

XXXII. Sagardo Lehiaketa, San Martzial Plazan.

12:00

Ogitartekoak Nao Etxearen eskutik, San Martzial Plazan.

12:30

Idi-demak, udal probalekuan.

13:00

Bertsolariak: Jexux Mari Irazu eta Libe Goenaga. Gai-jartzailea: Joseba Alkiza.

14:30

Anaitasunezko bazkaria, Altzatarra K.E.-ren egoitzan.

18:00

Idi-demen erakustaldia, Altzako probalekuan.

Ondoren

Bertsolarien azken saioa, San Martzial Plazan.